

EKINTZAK KALEAN



JUAN BARRETO / AP

HILDAKOENGATIK PROTESTAN. Venezuelako presidentearen oposizioak protesta egin zuen atzo Caracasen, ostiralean hiru lagun hiltzearen aurka. Gobernuko iturrien arabera, taxi gidari portugaldar batek aitortu du tiro egin izana.



CRIS BOURONCLE / EPA

CHAVEZEKIN ELKARTASUNA. Txilen Hugo Chavezen aldeko manifestazioa egin zuten herenegun, Venezuela zortzigarren greba egunean zegoenean. «Venezuelan faxismoak ez du aurrera egingo», zioen manifestari batek eskuan zeraman pankartak.



ESTEBAN FELIX / AP

POLIZIA ALARMA EGOERAN. Caracasko Francia Plazan alarma faltsua izan zen astelehenean, eta Polizia bertaratu zen. Plaza horretan bertan egin zuten ostiralean Chavezen aurkariak protesta, eta horretan ari zirela hiru lagun hil zituzten tiroz.

RICHARD GOTT HISTORIAGILE ETA KAZETARIA

OPOSIZIOA

«Estatu kolpea izan zenean Kongresua bertan behera utzi eta Gobernuko kide ohiak atxilotu zituzten. Pinocheten garaia gogorarazi zidan»

ERREFORMA KONSTITUZIONALAK

«Konstituzio berriak pribatizazioa debekatzen du eta hori da oposizioari Chavezen erregimenetik gutxien gustatzen zaion gauzetako bat»

«Gehiengoak Gobernua babesten du, baina oposizioak du agintea»

Ainara Mendiola | DONOSTIA

Kazetaria eta historiagilea, Hego Amerika, Afrika eta Asiako historiaren lekuko eta aztertzaile izan da Gott britainiarra, 1960ko hamarkadatik. Che Guevararen heriotza bizi izan zuen Bolivian, Txilen Allenderen aurkako estatu kolpea eta Hugo Chavezen ingelesezko lehen biografiaren egilea da: *The Shadow of the Liberator: The Impact of Hugo Chavez on Venezuela & Latin America* (Askatzai-learen Itzala: Chavezen eragina Venezuelen eta Latinoamerikan). Venezuelen izan zen apirileko estatu kolpearen ostean, eta ordutik egoera aldatu egin dela adierazi dio EGUNKARIARI.

■ Zertan da ezberdina apirileko egoera eta oraingoa?

Ezberdintasun handiena da oposizioak apirilean Armadako buruzagi batzuen babesa zuela. Apirileko estatu kolpearen ostean, 60 jeneral inguru erretiratu dira. Beraz, Chavezen erreformen aurka zeuden jeneral kontserbadoreak ez daude agintean; Armadako buruzagiak eta soldaduak Chavez babesten ari dira. Orain askoz zailagoa da estatu kolpea antolatzea, oposizioak —enpresaburuak, egunkarien jabeak eta sindikatuburu ustelak— ez du harreman berezirik militarburuekin. Zenbait jeneral erretiraturen laguntza dute, baina jeneral erretiratu bat ez da lagun-

garia estatu kolpe bat antolatzeke. Beste aldaketa da apirileko estatu kolpearen jakinaren gainean zeuden eta nola-baiteko oniritzia eman zioten AEBak negoziazioak sostengatzen ari direla eta ez oposizioaren nahia. Klase txiroan, berriz, izugarrizko aldaketa izan da. Chavezen agintaldiko lehen bi urteetan jendea ez zegoen oso motibatuta. Maiatzean hasi ziren ohartzen zein garrantzitsua zen Chavezek agintean segitzea, bestela Pinocheten estiloko Gobernua izango zutelako.

■ Oposizioak Pinocheten garaiko agintea inposatu nahi duela esan duzu. Zergatik?

Estatu kolpea izan zenean egin zuten lehen gauza izan zelako Kongresua zein Auzitegi Gorena bertan behera uztea, Gobernuko kide ohiak atxilotzen hasi ziren eta haien etxeak miatzen.

1973an Txilen nengoeneko garaia gogorarazi zizkidan. Iaz Chavez agintetik bota nahi zuen jendea zegoen, baina zur eta lur geratu ziren izaera mutur eskuindarra izan zuen estatu kolpearekin.

■ Hauteskundeak aurreratu eta Chavezek irabazten bado, oposizioak bera agintetik botatzeko ahaleginetan jarraituko al du?

Hori da arazoa. Oposizioak usate du irabaz dezakeela, baina oso litekeena da Chavezek irabaztea. Izan ere, oraindik klase txiroenen babesa du, eta herrialde gehienetan bezala, gehiengo zabalak dira. Eta, Venezuela bezalako herrietan iritzi inkestak oso desegokiak dira informazioa lortzeko, klase kontsumitzaileen iritziak azalerratzeko erabiltzen direlako.

■ Larrialdi egoera deitza da

Chavezek hartu behar duen lehen neurria egoera kontrolpean hartzeko?

Bai, larrialdi egoera aldarrikatuko balu, larrialdiko botereak eskuratuko lituzke, zeinak ahalbidetuko lioketen grebaren sustatzaileak atxilotzea eta guardia nazionala zabaltzea... Neurri batzuk hartzen hasiak dira, baina ohartu behar lukete greba altxamendua dela, legez kanpokoa, eta zapaldu egin behar dela.

■ Zein beste urrats eman behar ditu aginteari eusteko?

Oso zaila da jakitea. Halakorik ez da inoiz gertatu. Herrialdearen gehiengoak demokratikoki aukeratutako gobernu bat babesten du, baina gutxiengoak du agintea herrialdean. Klase heziaren zati handiena Chavezen aurkako da. Oso zaila da jakitea nola agindu herrialde

batean, klase ertain osoa zure erreformen kontra dagoenean.

■ Chavez presidente izan aurretik Petroleos de Venezuela pribatizatzeke zegoen egitasmoa al da grebaren arrazoi nagusia?

Bai, petrolio konpainia arma indartsuena bihurtu da oposizioaren eskuetan. 25 bat urtez Estatuaren menpe egon zen, eta Chavez agintara iritsi aurreko 10 urteetan prestatzen ari zen pribatizatorako. Konpainiako klase ertainak eta eliteak uste dute askoz hobe egongo lirakeela pribatua balitz; AE-Betako eta Erresuma Batuko enpresa transnationalei salduko balitzaie. Konstituzio berriak pribatizazioa debekatzen du, eta hori da oposizioari Chavezen erregimenetik gutxien gustatzen zaion gauzetako bat.

■ Gerra zibil arrisku errealik badago?

Oso zaila da; pazientzia maila oso altua da. Beste alde batetik, Latinoamerikan oso gutxitan izan dira gerra zibilak.

■ OEaren negoziazio saioak arrakasta izango al du?

Nahiko serio jokatzeko ari da. Latinoamerikako beste herrialdeen zein AEBen babesa du... Nire ustez askoz errazagoa egin zaio Chavezekin hitz egitea oposizioarekin baino. Gaur (atzo) irakurri dudanez, badirudi bozak aurreratzeko akordioa negoziatzeko prest daudela.

Lezoko Unibertsitateko Udala
IRAGARKIA
Alkatearen 265. Dekretuaren bidez eta 17/94 Legearen 6. artikulua aintzat hartuta, hona ERABAKIA:
BAT: S3 sektoreko zehaztapenak garatzen dituen Plan Partzialari haserako onarpena ematea.
BI: S3 sektoreko Plan Partziala jendaurrean jartzea 15 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdun orok alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.
Lezo, 2002-12-09.
Aitor Sarasola, alkatea.

Oñatiko Udala
ALKATETZA DEKRETUA
Udalaren lur-ondarea gehitzeko Zerbitzu Teknikoek eginitako lurzoruz ez urbanizagarriaren Erreserbako Mugaketa-Proiektua aztertu ondoren, eta ekainaren 29ko 20/98 Eusko Legebiltzarreko Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu Proiektua hasiera batean onartzea ebazten dut, eta hilabeteko epean zehar jendaurreko informazioan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco zein Euskaldunon Egunkarian kaleratuz. Proiektuak eragindako lurjabeen pertsonalki jakinaraziko zaie.
Oñatin, 2002ko azaroaren 29an
Alkatea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria